

HARTZAK

© David Ondars

Otsoa

Riri

Fifi

Lili

Aita

Ama

Eztitxu

Arantxa

Gaston

Pantxika

Lorea

Erle1

Erle2

Patron

Hartza

Kuxkulet

Eszenaren gainean Otso bat eta hiru zerri kumeak agertzen dira. Otsoa kadera baten gainean jarria da bere hiru zerriekin ondoan. Batek airea egiten dio, besteak zangoak garbitzen dizkio eta hirugarrenak paisola bat atsikitzen dio.

Ahotsa : Egun batez, otso batek oihan osoa kontrolatzen zuen. Oihan osoa ? Ez ! Hartz familia batek oino eta beti etsaiari buru egiten zion.

Otsoa : Ene zerriak ! Nor da oihaneko ederrena ?

Zerriak : (*aspertuak*) Zu otsoa !

Otsoa : Ene zerriak ! Nor da oihaneko azkarrena ?

Zerriak : Zu otsoa !

Otsoa : Ene zerriak ! Nork du kontrolatzen oihan osoa ?

Zerriak : Euh...

Otsoa : (*xutituz*) Egia ! Hartz familia batek oino eta beti etsaiari buru egiten dio.

Ahotsa : Hala, zer errana nuen ?

Otsoa : (*zerrieri*) Bukatu behar da ! Hogoi eta lau ordu baduzue hartz horiek kanporatzeko bestenaz : kuik! (*jestua eginez*)

Ahotsa : Ez da errexa izanen gaixoa !

Otsoa : (*ahotsari*) Zu ixil zite !

Otsoa joaiten da

Riri : Ez dakit zer egin, zuk ?

Fifi : Nik ere ez, zuk ?

Lili : Nik badakit...

Riri eta fifi : Zer ??

Lili : Eskapatuuu ! (*eskapatzen da*)

Riri : Are, atzemanen dugu bai !

Hiru zerriak ateratzen dira

Hartz aita etortzen da tupper ainitzekin, eta ama gibeletik kuilerekin. Xoko batean mahain ttipi bat bada eta bakotxak sartuko dira haren kaderarekin.

Ahotsa : 24 ordu bazuten beraz zerriek Hartzak kanporatzeko. Haien estrategia plantan ezarri zuten baina biharamunean, hartzaren etxean, dena normala zen.

Ama : Haurrak zauzte jatera !

Aita : Are, bakotxak ukanen du berea !

Hartz ttipiak lerroan ezartzen dira

Ama : Eztitxu zuretzat eztia

Eztitxu : Milesker ama !

Aita : Arantxa... arraina !

Arantxa : Milesker aita !

Ama : Gaston... gaztaina !

Gaston : Milesker ama !

Aita : Pantxika... martxuka !

Pantxika : Milesker aita !

Ama : Lorea... ébé loreak !

Lorea : Milesker ama !

Aita : Eta neretzat zer ene Canelle maitea ?

Ama : Hiretzat aita...aa...

Aita : Arroltze moleta ?

Ama : Ez ! Atzoko tarta !

Aita : Zer duzu Arantxa ? Ez duzu arraina maite ? (*Arantxak ez du jaten*)

Arantxa : Veganoa naiz

Ama : Ez holakorik etxe huntan ! Zoazi zure ganbararat !

Arantxa bere ganbararat joanen da. Besteek jaten dute. 2 erle sartuko dira.

Erleak : Egun on !

Aita : Bai egun on, nor zirezte ?

Erle1 : Ni naiz Jean

Erle2 : eta ni naiz Pierre

Erleak : JEAN PIERRE

Erle1 : Etxe berri bat atzeman dautzuegu

Erle2 : Bai eta gainera etxe berri bat atzeman dautzuegu

Erle1 : Eder ederra !

Erle2 : Bai eta gainera eder ederra !

Ama : Bainan ez dugu beste etxeen beharrik !

Erle1 : (*paper bat ateratzen du*) Izenpetu hor, eta etxea zuena da

Erle2 : Bai eta gainera izenpetu hor, eta etxea zuena da

Aita : Bainan ez dut ulertzen, nor zirezte ?

Erleak : Ebé ! Erlea Immobilier !

Ama : Ah Erlea Immobilier ! Otsoaren ideia !

Aita : Joan hemendik eta fite !

Erle1 : Otsoa ez da kontent izanen

Erle2 : Bai eta gainera...

Erle1 : Ixil zite !

Erleak ateratzen dira.

Ahotsa : Alala, hartz gaixoak erne izan behar ziren, hiru zerri kumeek haien erasoak igortzen baitzituzten ! Eta ez zen fini...

Bi pertsona sartuko dira, hodei batekin eskutan.

Hartza : Oh ! Oh ! Oh ! Egun on Jaun andereak !

Patron : Etkez etxe pasatzen gira kantu batzuen emaiterat

Hartza : Oh ! Oh ! Oh ! Kantu bat nahi duzue haurrak ?

Haurrak : Oh baiii !!

Eztitxu : Egin Reine des neiges otoi !

Gaston : Ez ! Nik Pauline eta Juliette nahi dut !

Pantxika : Nik Huntza maite dut!

Lorea : Nik nahiago dut Michel Etcheverry !

Haurrak : Otoi ! Otoi ! Otoi !

Patron : Ez ! Lo egiteko kantu bat eginen dugu

« Bonne nuit les petits »ko soinua entzunen da. Hartzak flauta joko du eta Patronek sablea botako du. Hartzak bat bestearen ondotik lokartzen dira.

Aita : Efikaza da ! Ni ere lokartzen naaaa... (eta erortzen da)

Patron : Are ! Lokartuak dira ! Zuri da kuxkulet !

Kuxkulet perüka blondarekin aterako da lainotik, xoka bat eskuan du.

Kuxkulet : Ahaha ! Are, Zadistak ! Sloveniarat ! Ahaha !

Patron : Huntza ! Huntza ! Huntza izorratu ba !

Hartza : Are kuxkulet, erna, kanpoan gira !

Hartza eta Patron ateratzen dira. Kuxkuletek hartzak estekatzen ditu.

Kuxkulet : Te, goxetua naiz pixka bat

Janen du hartzaren plateran

Kuxkulet : Te, akitua naiz pixka bat

Kuxkulet lokartuko da. Arantxa berritz etorriko da

Arantxa : Ama, ama ! Amets gaixto bat egin dut ! Ama ! Iratzar zite !

Ama iratzartzen da

Ama : Zer pasatu da ? Winnie ! Jeiki hadi !

Aita : Aaah (*besoak tiratuz*) Ze siesta !

Ama : Winnie ! Lokartu gaituzte Peio ta Pantxoa inutilek !

Aita : Ah otsoaren kolpea berriz ere ! Eh Ahotsa ! Erraiten ahal duzu otsoari, bere Boucle d'Or dugula gurekin !

Haurrek Kuxkulet estekatzen dute xokarekin.

Ahotsa : Oh otsoa ?! Zure Boucle d'Or Kuxkulet delakoa hartzarekin da ! Eta ez badituzu Hartzak libratzen ez dute blonda libratuko ere ! Beraz erna zite kuxkula !

Otsoa sartzen da, hiru zerri, erleak, Patron Hartzarekin.

Otsoa : Hartzak, aitortzen dut, galdu dut. Ongi etorriak zirezte ene Oihanean !

Hartz guziak : Oueee !!!

Otsoa : Eta zerriak, ez dituzue lukinkak bezala finituko !

Zerriak : Oueee !!!

Aita : Eta ene Canelle maitea izanen da Oihanaren president berria !

Otsoa : Eehh ??!

Denek begiratuko dute.

Otsoa : (*faltsuki*) Euh... Oueee !!

Patron : Istorioa fini da ! Kantu batekin fini dezagun !

Erle1 : Oh bai ! Benito Lertxundi !

Erle2 : Ez ! Mikel Laboa !

Riri : Ez ! Menditarrak !

Fifi : Altzükütarrak !

Lili : Iholdiarrak !

Aita : Elgorriaga !

Ama : David Olaizola !

Otsoa : Goliath !

« Bonne nuit les petits »ko musika abiatuko da, denak lokartzen dira.

OIHALA


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ilido beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.